

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2023IPLE0001
Eguna: 2024-01-30
Ordua: 19:00 – 20:12
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco Astigarragako EAJ-PNV
- Manex Aldalur Beldarrain Astigarragako EAJ-PNV

Bertaratu ez direnak

- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo Astigarragako EH Bildu
- Olaia Pastoriza Santos Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezko udal kontu-hartzailea

Aztergaiak

1. 2023ko azaroaren 28ko akta onartzea.
2. Sagardun Partzuergoa: kreditu transferentzia
3. Astigarragako herri-baratzeen emakida eta erabilera arautzeko erregelamendua. Alegazioak ebaztea eta behin betikoz onartzea.
4. EHPM-ren mozioa, gutxieneko pentsioa 1080
5. Informazio, galdera eta eskariak.

Esan-eginak eta erabakiak

1. 2023ko azaroaren 28ko akta onartzea.

Maria zinegotziak adierazi du akats bat dagoela aktan, izan ere adierazten da urriaren 31ko aktaren onarpenean bera abstenitu egin zela, bilera hartan egon ez zelako, eta bera osoko bilkura guztietan hartu duela parte. Urriaren 31ko akta begiratuta, ikusi da egon ez zirenak Ainara, Naroa eta Olaia zinegotziek izan zirela eta horiek izan zirela hurrengoanabstenitu zirenak, ez Ainara, Maria eta Olaia aktan jasotzen den moduan.

Bestetik, Maria zinegotziak adierazi du 4. aztergaiari (2024ko udal-aurrekontua: emendakinak erantzutea eta hasierako onarpena), eztabaida luze baten ondoren, berak adierazi zuela tonu horretan hitz egiten bazitzaion, diskusioan ez zuela jarraituko; eta hori aktak jasotzea eskatu du.

Alkateak ere eskatu du aktan jasotzea Maria zinegotziak ere adierazi zuela berak alkateari bakarrik erantzungo ziola, eta ez Andoni zinegotziari, eta nola alkateak esan zion aurrekontuen gaia izanik, ogasuneko lehendakariak ere azalpenak eman ditzakela, zinegotzi guztiek baitute eskubidea hitz egiteko.

Aktan aldaketa guzti horiek gehitu ondoren, bozkatzeari ekin zaio. Manex zinegotzia abstenitu egin da aurreko bileran ez zelako egon. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

2. Sagardun Partzuergoa: kreditu transferentzia

Alkateak 151/2024 Dekretuaren berri eman du, aurrekontuko kredituak, kreditu-transferentziaren modalitatean, aldatzeko espediente onartzen duena. Eta azaldu du hori egitearen arrazoia izan dela, partzuergoak kaxa arazoak edukitzea.

3. Astigarragako herri-baratzeen emakida eta erabilera arautzeko erregelamendua. Alegazioak ebaztea eta behin betikoz onartzea.

Alkateak azaldu du udal erregelamenduaren hasierako onarpenari Elkartuk alegazioa aurkeztu diola, eta hori izan dela jendaurrean egon den bitartean aurkeztu den bakarra. Alegazioaren nondik norakoak azaldu ondoren, Hirigintza, etxebizitza, ingurumen eta mugikortasuneko batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Onartzea Elkartuk (*Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa / Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea*) aurkeztutako alegazioa, eta 3. 4.3. eta 17.1. artikuluei idazkera berri hau ematea:

“3. artikulua. Definizioak.

a) *Pertsona erabiltzailea: administrazio-emakidaren esleipenduna edo titularra: Zerbitzua eskuratzeko, eta beraz, lagatzen zaion herri-baratzea erabili eta aprobetxatzeko eskubidea bereganatzen duen pertsona fisikoa.*

b) *Uzta: herri-baratzearen erabileratik eta aprobetxamendutik lortzen diren etekinak, hau da, lurra erain eta landatzearen ondorioz lortutako elementuak, hala nola, barazkiak, eta lekariak.*

c) *Elementu komunak: baratzeetan dauden eta erabiltzaile guztiek erabiliko dituzten udal-lursailari dagozkion elementuak, naturalak edo bertan jarriak, hala nola, pasabideak, hesiak, hoditeria, ur-tangak eta muga-euskarriak.*

Era berean, elementu komun gisa hartzen dira erabiltzaileen eskura jartzen diren nekazaritzako

lanabesak eta gainerako tresnak.

d) Erantzukizuna: erabiltzaile bakoitzaren erantzukizuna, modu indibidualizatuan eta esleitutako lur-zatiari dagokionez.

e) Herri-baratzea: erabiltzaile bakoitzari dagokion lur eremua.

Lur horren arabera ezartzen da pertsona erabiltzailearen erabilera eta aprobetxamendu eskubidea.

f) Lursaila: herri-baratzeak eta horien elementu komunek osatzen duten Udalaren jabetzako lursaila.

g) Familia-unitatea: etxebizitza berean izatez eta eskubidez elkarrekin bizi diren pertsonak: Ezkontideak edo izatezko bikotea (edo bikotekideetako bat alarguntza, banaketa edo dibortzioen kasuan) eta adin txikikoak diren seme-alabak, etxe-bizitza berean bizi direnak.

h) Irisgarritasun unibertsala: inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek bete behar duten baldintza, bai eta objektu edo tresnek, tresnek eta gailuek ere, pertsona guztiek ulertzeko, erabiltzeko eta praktikatzeko modukoak izan daitezen, segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modu autonomo eta naturalenean.

i) Diseinu unibertsala edo pertsona guztientzako diseinua: jarduera honen bidez, jatorritik, inguruneetatik, prozesuetatik, ondasunetatik, produktuetatik, zerbitzuetatik, objektuetatik, tresnetatik, programetatik, gailuetatik edo tresnetatik sortzen edo proiektatzen dira, pertsona guztiek ahalik eta gehien erabili ditzaten, egokitzapenik edo diseinu espezializaturik behar izan gabe.

j) Lehentasun-taldeak: beren ezaugarri bereziak direla-eta, beste pertsona batzuekin alderatuta ahul gisa hartzen diren kolektiboak, hala nola, erretiratuak, langabeak, desgaitasuna duten pertsonak, zaurgarritasun-arriskuan dauden pertsonak.

k) Interes-taldeak: interes bereziko kolektibo gisa hartzen diren taldeak, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta ikastetxeak, adibidez.

4. artikulua. Erregimen aplikagarria eta erregulazioa.

(...)

3.- Horretarako eskumena duen udal organoak bermatu egingo du Astigarragako herri-baratzeetan irisgarritasunaren Sustapenerako abenduaren 4ko 20/1997 Legean eta hura garatzeko arauetan xedatua dagoena beteko duten baratzeak ere izatea, desgaitasuna duten pertsonak erabili ahal izan ditzaten, lehentasunezko izaeraz.

17. artikulua. Zozketa irizpideak.

1.- Zozketa-irizpide zehatzak dagokion lizitaziorako deialdian zehaztuko dira, honako irizpide hauek kontuan hartuz:

a) Sexuen arteko aukera berdintasunaren printzipioari dagokionez, emakume eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadin, zozketa bakoitzean, partzelen emakida ematerakoan emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna bermatuko da, hau da, gutxienez emakidako titularren %40a emakumezkoak izango dira ahal den neurrian.

b) Herri-baratze bakoitzaren zozketarako Udalak finkatutako lehentasun taldeek lehentasuna izango dute.

Gainera, dagokion deialdian, Udalak lehentasuna ezarri ahal izango die 3. artikuluan "lehentasun-



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

talde" gisa araututako kolektiboei, eta, kasu horretan, talde horietarako baratzeen kopurua edo kupoa ezarriko du."

Bigarrena.- Astigarragako herri-baratzeen emakida eta erabilera arautzeko Erregelamenduaren testu bategina behin betiko onartzea.

Hirugarrena.- Astigarragako herri-baratzeen emakida eta erabilera arautzeko Erregelamenduaren testu bategina osorik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta web orrian argitaratzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena aho batez onartu da.

4. EHPM-ren mozioa, gutxieneko pentsioa 1080

Alkateak azaldu du mozioak aldeko irizpena jaso zuela urtarrilaren 23an egindako bozeramaile batzordean, eta hitza pasa dio Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduako (EHPM) kide bati.

Horrek, mozioa aurkeztearen arrazoiak eta horren nondik norakoak eman ditu, eta testu hau aurkeztu da onartu izan dadin:

"EHPMk Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak zuengana jotzen du ASTIGARRAGAKo Udalaren osoko bilkuran mozioa bat onar dezazuen, gue funtsezko aldarrikapenetako bat babestuz:pentsiodun guztiek gutxienez 1080 euroko diru-sarrerak- izatea bermatzea, 14 ordainsaritan.

Idazki honekin batera doakizu Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika eta Gazteria Batzordearen aurrean egin eta aurkeztu dugun txosten laburtua eta osoa. Bertan eskatzen eta justifikatzen dugu errebindikazio hori, nola gauzatu eta zenbatesten dugu kostua. Txostena eskari honekin hasten da:

" EHPMk egindako txosten honen bidez, 2023rako gutxieneko pentsioa 1080 eurotan ezartzeko gure berehalako eskaria bultzatu nahi dugu. Eskari hori estatuko Gobernuari zein EAEko eta Nafarroako gobernuari zuzentzen diegu; azken horiei, gainera eskatzen diegu, gaue egun 783 eurotan dagoen gutxieneko pentsioa finkatzen ez den bitartean, gutxieneko pentsio hori 1080 eurora arte osa dezatela hamalau ordainsaritan.

Txosten honekin urrats bat gehiago ematen dugu gure eskariaren azalpenean, eta EAEko eta Nafarroako beharrezko aurrekontuaren zenbatespen ekonomikoa kalkulatu dugu"

Gainera, txosten horretan (ikus dezakezuen bezala) adierazten dugu eskaera hori premia sozial urgentea eta justiziazkoa dela, erakunde publikoek herritarrei bizi-baldintza duinak bermatzeko behar diren erabakiak hartzeko betebeharra dutelako; baldintza horiek, lanetik etorritako diru-sarrerarik ez duten adineko pertsona eta pentsiodunen kasuan, gutxieneko diru-sarrera nahikoak bermatu behar dituzte.

1080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeak nabarmen murriztuko luke pentsioetan dagoen genero-aldea. Bizi-kostuaren igoeraren arabera pentsioen balioa EZ handitzearen ondorioak nabarmenak dira, txostenaren 14. orrian ikus daitekeen bezala: "„, egiatzen dugu azken urteetan (2011tik 2023ra) LGS Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata 641,40 eurotik 1080 eurora igo dela, baina gutxieneko pentsioa 601,40eurotik 783 eurora baino ez da igo. Pentsioak soldata gorakatuak dira, zalantzarik gabe, eta haien zenbatekoa zuzenean lotuta dago jasotzen diren soldateki; beraz, gutxieneko pentsioak ere LGS izan behar du errefentziak gisa. Onartezina da 2011n Gutxieneko Pentsioan LGSren %93,7 izatea eta 2023an %72,5 izatea"

Gaur egun, bizi-kostuaren hazkunde esponenziala dela eta, gero eta pentsiodun gehiagik galtzen



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

dituzte etxebiztza osasungarria eta beren beharretara egokitua izateko aukerak, elikadura osasungarria, haien osasuna eta mendekotasunari erantzuteko arreta eraginkorra bermatzea, etab. Gaur egun, EAEko 167.718 pentsiodunek 1080 eurotik beherako diru-sarrerak dituzte pentsioengatik, gehienak emakumeak dira.

Gutxieneko pentsioaren aldagai guztiek emakume izena dute. Genero ezberdintasunean ikusten da hori, eta horren aurrekaria da soldaten ezberdintasuna eta emakumeen aldeko bateko esleipena oraindu gabeko edo gaizki ordaindutako lanari, ugalketaren eta zaintzen eremuan.

1080ko aldarrikapen horrek duela bost urte baino gehiagotik gure mobilizazioetan parte hartu duten milaka pertsonak ematen dioten zilegitasuna du.

Ondorioztatzen dugu ez dagoela arrazoi ekonomiko edo politikorik ez egiteko, eta ezin dugu egun bat gehiago itxaron.

Horregatik, ASTIGARRAGAKO Udalaren osoko bilkurari honako erabaki hau eskatzen diogu:

1.EAEko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari demandatu, 1080 eurora arte osatu dezaten pentsiodunen gutxieneko pentsioa 14 ordainsaritan, 2023ko urtarrilera arteko atzeraeraginezko ondorioekin.

2. EAE Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari jakinaraztea udal honen osoko bilkuran hartutako erabakia, 2024ko urtarrilaren 30eko egun honetan.”

Alkateak hitza hartu eta adierazi du bere taldeak mozioa onartzearen alde bozkatuko duela.

Mariak ere hitza hartu, eta adierazi ondoren edozien pertsona enpatia gutxi eduki arren proposatzen denaren aldekoa dela, bere taldeak ere mozioa babestuko duela komentatu du. Baina argitu nahi izan du pentsioen gaia estatuko eskumen eksklusiboa dela, bere taldeak horren transferentzia askotan eskatu arren, ez dutela lortu, eta EHBilduk ere eskatzerik zuela estatuko lehendakaritza negoziatu zenean, baina ez zutela ezer eskatu. Eta bukatzeko adierazi du udalak ere jar dezakeela pentsio-aldea, eta hori proposatuz gero, bere taldeak proposamena babestukoo lukeela.

EHPMko kideak hitza hartu eta azaldu du jaurlaritzak RGIaren bidez gehitu dezakeela, eta Maria zinegotziak azaldu dio horrela ere ezin duela gehitu, horretarako eskumena ere ez dutelako.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta mozioa aho batez onartu da.

5.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- Dirulaguntzen zuriketak

Alkateak azaldu du 2023ko dirulaguntzen zuriketak aurkeztu direla, eta ekitaldia ixteko falta dela, azken ordainketak egitea.

b.- Sagardo denboraldia, sentsibilizazio kanpaina.

Alkateak adierazi du sagardo denboraldia herriarentzat ona izan arren, eragozpen asko sortzen dituela.

Azaldu du denboraldian udaltzainek zerbitzu berezia egingo dutela (gauetan udaltzain zerbitzua egongo da), eta kale garbiketean ere zerbitzu indartuko dela, eta garraioari dagokionez, gauetz autobusen zerbitzua egongo dela, eta taxi zerbitzua ere indartuko dela, hainbat datetan Buruntzaldeko eta Pasaiako taxilariak ere

Astigarragan jardungo dutelako.

Bestetik, azaldu du sentsilizaio kanpaina bat egingo dela, Hernaniko Udalarekin batera, eta horren nondik norakoak azaldu ditu, eta aipatu horretan erabiko direla kartelak, bideoak, kuina, banderatxoak.

Bukatzeko, aipatu du aurten ere karpa morea jarriko dela, eta arreta zerbitzua.

c.- Obrak eta kontratazio espediente berriak.

Alkateak udalerrian egiten ari diren obren berri eman du: Sagardo plazako jolastokia, ibai parkeko jolastokia eta argiteria, ibai parkea handitzeko obrak, Sagardotegi Zeharrako saneamendua eta herriguneko argiteria LED sistemara aldatzea.

Era berean, adierazi du hurrengo hilabetean beste hiru obra-kontratu esleitu direla: Arrobitxulo hiritartzeko, Goiko-iturrin igogailua jartzeko eta Latxaga-Olabideko herri-bidea konpontzeko.

d.- Parte hartze prozesuak eta legegintzaldiko plana.

Alkateak azaldu du irailean jarri zirela martxan 4 parte-hartze prozesu (Irisgarritasuna, euskara, berdintasuna eta tokiko garapen jasagarria) eta horiek bukatzeaz daudela. Gaineratu du horien emaitzekin eta inbertsioen azterketa eta bideragarritasuna kontuan hartuta, legegintzaldi plana prestatzen daudela, eta azken horren aurkezpena martxoaren 14an egingo dutela.

e.- Dirulaguntzen plan estrategikoa

Alkateak adierazi du egin berri den Tokiko Gobernu Batzarrean onartu dela 2024-2026ko dirulaguntzen plan estrategikoa. Azaldu du dokumentu horretan aurreikusten dela 2024an 970.055,52 € ematea (deialdi irekietarako eta dirulaguntza izendunentzat), horiek banatzen direla 10 arloetan, eta aurreikusten dela 47 espediente izapidetzea (31 izenduna eta 16 lehiaketa bidez ematekoak).

Bukatzeko komentatu du dagoeneko onartu dela dirulaguntza izendun bat, eta otsaila eta martxoan zehar onartuko direla besteak.

f.- Tren geltokia

Herritar batek Astigarragako tren geltokiari buruzko informazioa eskatu du, eta alkateak azaldu dio obra hori egitea Adif eta ETSren esku dagoela, proiektua dagoeneko idatzita dagoela (jendaurrean egon da eta udalak alegazioa aurkeztu dio), eta aurreikusten dela tren geltokia eta pasarela 2026rako egina egotea, eta hasiera batean pasarela egitearen kostua ez duela udalak bere gain hartu beharko.

g.- Ergobia

Herritar berak salatu du Ergobia auzoarekiko utzikeria, eta adierazi du zabor-edukiontzia etxetik urrun dituela, ez dagoela paperontzirik eta oso zikin dagoela obren ondorioz. Gainera, galdetu du ea nola baimendu den etxebizitza-bloke bat eraikitzea beste eraikin batetik hain gertu eta altuera horrekin, eta argudiatu du bere garaian bera bizi den etxebizitzaren sustatzaileak adierazi ziola ezin zutela altuago eraiki.

Alkateak azaldu dio zabor-edukiontzi horiek alboko karga dutela, eta ezin direla edozein lekutan jarri, bestela kamioiek ezin dituztelako horiek hustu, eta lekuz aldatu baziren izan zela, lehen zeuden kokapenean

hondakindegia bat eratzen zegoelako. Eta Andoni zinegotziak gaineratu du lekuz aldatu zirela, bizilagunek horrela eskatu zutelako.

Bestetik, eraikitzen ari diren etxebizitzetara dagokionez, alkateak azaldu du hori baimendu dela 2009an onartutako HAPOak horretarako baimena ematen duelako, plangintzak horretarako eskubidea emanez gero, gero ezin delako baimena ukatu, eta beraiek onartu ez zuten plangintza tresna horretan jasotzen dela distantzia, berari etxea saltzerakoan hori ez esan arren. Halaber, azaldu dio HAPOak eta Plan Bereziak eraikigarritasuna arautzen dutela, hori etxebizitzetara metro karratuen arabera dela, eta kasu honetan erakin berria udalari lokal bat emango zaionez, ez dela eraikigarritasuna handitu.

Herritarrak etxe batetik besterako gutxieneko distantzia zein den galdetu du, eta Andoni zinegotziak azaldu dio hori kode zibilean arautzen dela, lehen etxeak gaur egungo distantzia berera zedela, eta ez dagoela bista-zortasunik.

Herritarrak berriro ere hitza hartu eta oraingoan salatu du belux leihoak jarri direla auzoan. Eta alkateak azaldu dio horiek udal baimenik gabe jarri badira, zehapen espedientea izapidetuko dela, eta gonbidatu du udaleko hirigintza sailetik pasatzera baimenen inguruko informazio izateko, edo nahi badu salaketa jartzeko.

h.- Anbulatorioa

Herritar berak anbulatorio berriaren inguruko informazioa eskatu du.

Alkateak azaldu dio udalak 800 m²ko lokala eskaini zuela Urumea berrin zerbitzu hori jartzeko, baina bi urte pasa ondoren Jaurlaritzak adierazi duela hori ez dela nahikoa, 1000 m² behar dituztela eta lokala ez izatea, eraikin osoa baizik. Horregatik eskaini dela Bidebitarteko kaxaren atzeko aldean udalak jabetzan duen lursail bat ematea (hori 2 solairu eraiki daitezke), udalak ez duelako bestela non jarri, eta azaroan ontzat eman zutela kokapen hori. Beraz, HAPOaren aldaketa puntuala egingo dela (aurten hasiko dena), ekipamendua hor jarri ahal izateko, eta obra-proiektua idatzia, zein obra gauzatzea, Osakidetzari dagokiola, eta uarreikusten dela 2028rako eraikita egotea.

i.- Industrialdea

Herritar berak esan du jakin nahi duela zergatik ez zen lerro horirik margotu poligonoa asfaltatu zenean, lehen kanpaina egin zenean. Eta alkateak erantzun dio ez duela obraren xehetasun hori ezagutzen, eta aurreratu dio bide-zorua konpontzeko beste kanpaina bat egingo dela, eta horretan kontuan hartuko dela bere kexa.

Bestalde, partzela barruko bidea ixteagatik ere kexu da. Horri erantzun zaio lurzati pribatua bada, pabeioi jabeakideen arteko gai bat dela, lizentziak hirugarrenei kalterik eragin gabe ematen direlako, baina informazio gehiagorik gabe ezin zaiola behar bezala erantzun, eta hirigintza-sailean hitzordua hartzea gomendatzen zaio. Baina herritarrarentzako arazoa da bere egunean pabiloiak gaizki eraiki izana.

j.- galtzada-harrien egoera

Beste herritar batek galtzada-harrien egoera salatzeke hartu du hitza, eta adierazi du horietako asko aske eta urez beteta daudela, eta Udalak haien egoera egiaztatu beharko lukeela.

Alkateak galdetu dio udalerriko zein guneri buruz ari den, eta Aitor zinegotziak esan dio horrelako kexak ere egin ditzakeela obra eta zerbitzuen sailera deituta, baina herritarrak erantzun du hori ez dela bere lana, Udalarena baizik. Dena den, bi leku aipatu ditu industrialdea (adierazi gabe udalerriko zeinetan) eta Zubimusi 1-2-3.

k.- licencia de terraza

Laket tabernako arduradunak hitza hartu du tabernarako terraza-lizentzia ez emanagatik kexatzeko. Adierazi du udal lizentzia gaizki aplikatu dela bere kasuan, eta alkateari erantzuten utzi gabe (horrek hitz egiten zegoenean moztu baitio), gaineratu du udalak 3 aukera zituela: aurreko lizentzia luzatzea, 12 mahaietarako lizentzia ematea edo lizentziarik ez ematea, eta gehien kaltetzen duena aukeratu dela.

Alkateak azaldu dio udalak lizentzia ordenantzaren arabera izapidetu duela, urriaren 9an aurkeztu zuela eskaera, gero eskatu mahai gainean uztea eskatu zuela eta gero izapidetzea, kontrako txostena dagoenez ebatzi aurretik entzunaldia eman behar dela, eta guzti horretarako denbora behar dela, eta atzeratu bada izan dela bere erruz.

Tabernaren arduradunak adierazi du bizilagunen erkidegoaren bilera azaroaren 30ean izan zela, eta ezin izan zuela lizentzia abenduaren 30era arte eskatu, espedientearen jarraipena eskatu zuela abokatuak aholkatu ziolako, baina oraindik ez zela izapidetu aurreko etete-eskaera. Gainera, komentatu du ordenantza bat egiterakoan Udalari hitz bat ahazten bazaio, gero ezin duela testua nahi bezala interpretatu, eta ordenantza bere horretan aplikatzeko sinadura-bilketa bat egin duela, eta horren ondorioz autoaren beira hautsi diotela salatu du.

Alkateari erantzuten saiatzen da, baina herritarrak behin eta berriz eteten dio, eta alkateak ordenera deitu arren, ez dio erantzuten uzten. Azkenean, alkateak lortu du azaltzea espedienteari egindako alegazioa eguneko azken orduan aurkeztu duenez, ez duela denborarik eman teknikoki eta juridikoki aztertzeke. Azaldu dio udal-ordenantzaren aldatetaren jatorria parte-hartze prozesu bat dela, ordenantza argia dela eta modu berean aplikatu zaiela establezimendu guztiei, eta ordenantzaren espiritua kontuan hartu behar dela.

Maria zinegotziak hartu du hitza eta komentatu ondoren udal-idazkariari espedientearen nondik norakoak galdetu dizkiola, adierazi du bere taldeak ez duela iritzirik emango espedientea ebatzi arte, baina 18. artikuluko 3. eta 5. atalen artean zalantza sor daitekeela.

Establezimenduko arduradunak salatu du guztiei ez zaizkiela irizpide berak aplikatzen lizentzia emateko orduan, 3 mahai jartzeko aukera bakarrik duenari eman zaiola 10 jartzeko, 25 mahairako lizentzia duten establezimenduak daudela, eta lizentziarik gabeko terrazak ere daudela. Eta adierazi du udal-teknikariek esan diotela gai politikoa dela.

Alkateak berriro azaldu dio taberna guztiek (Sagartxo, Txiki...) irizpide berak aplikatu zaizkiela, tabernaren batek ordenantza edota lizentzia bete ezean, udalak neurriak hartuko dituela, eta tabernako arduradunari esaten dio beste batzuk ordenantza ez betetzea salatzen duela, baina berak ere ez duela betetzen.

l.- Herriko garraiolariak

Laugarren herritar batek komentatu du industrialdean kamioi asko daudela aparkatuta, mugitu gabe eta eta horrek ez duela uzten herriko kamioiak aparkatzea, eta hori konpontzeko zerbait egin daitekeen galdetu du.

Alkateak azaldu dio industrialdea ez dela kamioiak aparkatzeko gunea, ez herrikoentzat, ez kanpokoentzat, ez bada partzela pribatuen barruan. Eta aipatu du udalaren asmoa dela Gruas Alonsoren inguruan oinezkoentzako prestatzea.

m.- Industrialdeko zebra-bideak

Informazioa, galdera eta eskarietan hitz egin duen lehendabiziko herritarrak adierazi du industrialdeko zebra-bideak libre egon beharko luketeela (oraingoa ere azaldu gabe herriko zein industrialdeetaz ari den), baina beti forgoneta eta kamioiak daudela, eta horri arriskutsua dela.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Alkateak azaldu dio batzuetan mezulariek eta kamioi-gidariak une batez uzten dutela ibilgailua, eta ez dagoela nahikoa udaltzaingo zebra-bide guztiak kontrolatzeko, baina herritarrak erantzun dio arazoa ez dela 5 minutuz uztea, aparkatzea baizik. Eta alkateak argitu dio batzuetan enpresaren batek aparkatu izan duela beren pabeioietako espazio-arazoengatik, baina kasu horietan Udalak neurriak hartu dituela.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2024ko urtarrilaren 30ean

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria